

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua:	1337/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko abenduaren 16koa, garabidean diren herrialdeetan elikagaien prezioen igoera handiari azkar erantzuteko mekanismoa ezartzen duena.
--------	--

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*REGLAMENTO (CE) No 1337/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 16 de diciembre de 2008 por el que se establece un mecanismo de respuesta rápida frente a la fuerte subida de los precios de los productos alimenticios en los países en desarrollo*» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 354, 2008/12/31koa).

1337/2008 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 354, 2008/12/31koa)

1337/2008/EE Erregelamendua, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko abenduaren 16koa, garabidean diren herrialdeetan elikagaien prezioen igoera handiari azkar erantzuteko mekanismoa ezartzen duena.

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Trataturia eta, bereziki, trataturia horretako 179. artikuluko 1. paragrafoa ikusita,

Europako Batzordeak egindako proposamena ikusita,

Tratatuko 251. artikuluan xedatutako prozedurarekin bat ⁽¹⁾

Eta ondorengoak kontuan izanda:

(1) Elikagaien prezioen hegazkortasunak egoera larria eragin du garabidean diren hainbat herrialdeetan eta herrialde horietako biztanleengan. Elikagai-krisiarekin batera, finantza- eta energia-krisia eta ingurumenaren hondatzea ere etorri dira. Batez ere elikagai-krisiak mehatxu egin du beste ehunka milioi pertsona muturreko txirotasunera eta gosete- eta desnutrizio-egoerara eramango dituela, eta biztanle horiekin elkartzatuz izateko ahalegina egitea eskatzen du. Elikagaien merkatuen etorkizunari buruzko datu guztiek ondorioztatu dute elikagaien prezioek oso aldakorrak izaten jarrai lezaketela datozen urteetan ere.

(2) Beraz, erregelamendu honek finantzaketarako mekanismo bat ezarri behar du garabidean diren herrialdeetan elikagaien prezioen hegazkortasunak eragin duen krisiari erantzun azkarra emateko. Gaur egun Europar Batasunaren garapen-politikako tresnen osagarri izango da mekanismo hori.

(3) Kontseilua eta kontseiluan bildutako Estatu kideetako Gobernuen ordezkariak, Europako Parlamentua eta 2005eko abenduaren 20ko Batzordea adostasunera iritsi ziren, garapenaren gainean. Garapenari buruzko Europako erabaki horretan ⁽²⁾ adierazi zen Europako Erkidegoak (aurrerantzean, «Erkidegoa») lanean jarraituko duela elikagaien segurtasuna hobetzeko, bai nazioartean, bai eskualdean eta herrialdean ere. Helburu hori betetzen lagundu behar du erregelamendu honek ere.

(4) 2008ko maiatzaren 22an, Europako Parlamentuak ebazpen bat onartu zuen, Europar Batasunean eta garabidean diren herrialdeetan elikagaien prezioak igotzeari buruzkoa. Ebazpen horretan, premiazko eskaera egin zion Kontseiluari bermatu zezan elikaduraren gaineko nazioko eta nazioarteko politika guztiak koherenteak izan zitezela, elikatze eskubidea erabiltzeko aukera izan zedin.

(5) Europako Kontseiluak, 2008ko ekainaren 20ko bileran, irmoki esan zuen behin eta berriz konpromisoa hartu zuela garapenerako laguntza ofizialerako helburu kolektibo bat betetzeko, errenta nazional gordinaren % 0,56 2010erako, eta errenta nazional gordinaren % 0,7 2015erako. Halaxe dago jasota 2005eko maiatzaren 24ko Europako Kontseiluaren ondorioetan, 2005eko ekainaren 16ko eta 17ko Europako Kontseiluaren ondorioetan eta Garapenari buruzko Europako erabakian.

(6) Europako Kontseiluak, 2008ko ekainaren 20ko ondorioetan, onartu zuen elikagaien prezio garestiek eragin larria zutela munduko herri txiroenetan, eta arriskuan jartzen ari zirela aurrerakuntzak, milurtekoaren garapen-helburuak lortzea xede zuten aurrerakuntzak. Hori ikusita, Kontseiluak Europar Batasuneko ekintza-programa bat egin zuen, milurtekoaren garapen-helburuak betetzeko. Ekintza-plan horretan adierazitakoaren arabera, Europar Batasunak konpromisoa hartuta du elikagaietarako eta nekazaritzarako mundu-elkarte bat sustatzeko, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) biltzarreko adierazpenarekin bat. Halaber, adierazi zen Europar Batasunak lan garrantzitsua egin nahi duela, 2010. urtea baino lehen finantzaketako gabezia batzuk betetzen laguntzeko, nekazaritzaren, elikagaien segurtasunaren eta landa-garapenaren esparruetan.

(7) Europako Kontseiluak ondorioztatu zuen, halaber, ahalegin horretan, Europar Batasunak sustatuko duela gaur egungo elikagaien krisia arintzeko nazioartean erantzun koordinatuagoa ematea eta epe luzeagoa jartzea, bereziki, Nazio Batuen eta nazioarteko finantza-erakundearen esparruan. Hori, gainera, zorioneko da, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak sortu duelako Goi Mailako Lan Taldea, elikagaien segurtasuna munduan jasaten ari den krisiaren gainean lan egiteko. Orobat, jarrera irmoa du bere eginkizuna osorik betetzeko, munduko elikagaien segurtasunari buruz 2008ko ekainaren 5ean FAOren Goi Mailako Konferentzian onartu zen Adierazpena gauzatzeko lanean.

¹ Europako Parlamentuaren txostena, 2008ko abenduaren 4koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabe) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko abenduaren 16koa.

² Baterako adierazpena, Kontseiluarena eta Estatu kideetako Gobernuetako ordezkariena (kontseiluan bilduta), eta Europako Parlamentuarena eta Batzordearena, Europar Batasunaren «Garapenari buruzko Europako erabakia» izenburudun garapen-politikari buruzkoa (C 46 EO, 2006/02/24koa, 1. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Elikagaien segurtasunaren gaineko Goi Mailako Lan Taldeak ekintza-esparru zabala hartu du (Comprehensive Framework of Action, CAF) eta nazioarteko eta eskualdeko erakundeek beren ekimenak aurkeztu dituzte. Europako Kontseiluak erabaki zuen, halaber, babes handia emango diola, erantzun sendo gisa, nekazaritzako produktua eskaintzeari garabidean diren herrialdeetan, eta emango duela, bereziki, nekazaritzako sargaietarako beharrezko finantzaketa eta laguntza, merkatuan oinarritutako arrisku-kudeaketarako tresnak erabiltzeko. Gainera, laguntza nabarmen handiagoa emango du nekazaritzan egingo diren inbertsio publiko eta pribatuetarako eta, oro har, garabidean diren herrialdeak adoretuko ditu nekazaritzako politika hobekia egin ditzaten, bereziki elikagaien segurtasuna sustatzeko eta herrialdean integratzea indartzeko. Orobat, Europar Batasunak zenbait baliabide mobilizatuko ditu, elikagai-laguntzaz haratago, segurtasun-sareak finantzatzeko, herri txiro eta ahulentzat.

(8) Oso finantza-behar eta behar material handiak bete behar dira elikagaien prezioak igo izanaren ondorioei eta kausei irtenbidea aurkitzeko. Nazioarteko komunitate osoak eman behar dio erantzuna egoera horri, eta Europako Erkidegoak ere hitz eman du berari dagokionean lagunduko duela. 2008ko ekainaren 20ko Europako Kontseiluak poztasunez jaso zuen Europako Batzordearen asmoa. Hain zuzen ere, Europako Batzordeak proposamen bat aurkezteko gogoia erakutsi zuen, garabidean diren herrialdeetan nekazaritzari laguntzeko funts berria sortzeko proposamena, indarrean diren Finantza Aurreikuspenen esparruan.

(9) Europako Erkidegoaren erantzuteko estrategia bideratu behar da, bereziki, gogor suspertzera eskaintzaren areagotzea, garabidean diren herrialdeetako nekazaritza-sektorean epe laburrean eta ertainean, egoeraren aurrean positiboki erantzuteko modu gisa. Era berean, nabarmen murriztu behar dira elikagaien prezioen hegazkortasunak herrialde horietako biztanle txiroengan dituen ondorio negatiboak. Erkidegoarentzat interesgarri da, halaber, eskaintzaren aldetik ere erantzuna izatea, horrek murriztu egingo bailituzke nekazaritzako prezioek gaur egun jasaten dituzten prezioak.

(10) Erkidegoak hainbat tresna ditu garapenean laguntzeko, epe luzekoak. Zehazki, honako hauek: 1905/2006/EE Erregelamendu, 2006ko abenduaren 18koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Garapenerako Lankidetzako Finantzatzeko Tresna bat ezartzen duena ⁽¹⁾; eta Europako Garapen Funtsa, garapen ofizialerako laguntza ematen diena Afrika, Karibe eta Ozeano Bareko herrialdeei (AKOB) eta itsasoz haraindiko herrialde eta lurraldeei (IHHL). Tresna horiek, berriki, herrialde onuradunen epe ertain eta luzerako garapen-lehentasunen arabera programatu dira. Tresna horiek eskala handian birprogramatzeak xede izango luke epe laburrean krisiari aurre egitea. Baina birprogramatze horrek arriskuan jarriko luke herrialde horietan ezarrita dauden lankidetzarako estrategien koherentzia eta oreka. Erkidegoak baditu beste bi tresna ere: 1257/96/EE Erregelamendua, Kontseiluarena, 1996ko ekainaren 20koa, laguntza humanitarioari buruzkoa ⁽²⁾, premiazko laguntza bermatzeko aukera ematen duena; eta 1717/2006/EE Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko azaroaren 15ekoa, Egonkortasun Tresna bat ezartzen duena ⁽³⁾.

(11) Nolanahi ere, tresna horiek dagoeneko mobilizatu edo birprogramatu dira 2008an, ahal izan den neurrian, garabidean diren herrialdeetan elikagaien prezioen hegazkortasunaren ondorioak konpontzeko. Beste horrenbeste egin liteke, oso neurri mugatua, 2009an ere. Dena den, hori ez litzateke nahikoa izango beharrak betetzeko.

(12) Horrenbestez, berariazko finantzaketa-mekanismo bat sortu behar da, lehendik dauden finantzaketa-tresnen osagarri izango dena, gaur egun garabidean diren herrialdeetan elikagaien prezioen hegazkortasunak dituen ondorioak azkar onbideratuko dituzten neurri premiazkoak eta osagarriak hartzeko.

(13) Erregelamendu honi jarraikiz, laguntza kudeatu beharko litzateke bertako biztanleei elikagaien eskaintza handiago emateko moduan.

(14) Finantza-mekanismo horren esparruan hartutako neurriek lagundu behar die garabidean diren herrialdeei datozen kanpainetan honako hauek egiten: nekazaritzako produktibitatea areagotzen, herrialdeen beraien eta herrialdeotako biztanleen berehalako beharrei azkar erantzuten eta lehendabiziko neurriak hartzen, ahal den heinean, bestelako elikagaien segurtasun ezeko egoerak aurreikusteko. Aldi berean, lagundu behar dute munduan elikagaien prezioen hegazkortasunaren ondorioak murrizten, eta, hori, pertsona babesgabeenei, nekazari txikiei eta Europako kontsumitzaileei eta nekazariei laguntzeko xedearekin.

(15) Erregelamendu hau betez aurreikusi diren neurrien izaerak berak eskatzen du finantzaketarako erabakiak hartzeko prozedura eraginkorrak, malguak, argiak eta azkarrak ezartzea, bai eta lankidetzaren estua ere, tartean diren erakunde guztien artean.

(16) Bermatu beharko da bi motatako neurriak elkarren artean koherenteak izango direla eta jarraitutasuna izango dutela: alde batetik, epe laburreko neurriak, elikagaien prezioen hegazkortasunaren eragin zuzen eta larriena jasaten

¹ L 378 EO, 2006/12/27koa, 41. or.

² L 163 EO, 1996/07/02koa, 1. or.

³ L 327 EO, 2006/11/24koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

duten herriei laguntza ematekoak; eta, bestetik, egiturazkoagoak izango diren neurriak, gaur egungo elikagaien krisia berriz gerta ez dadin.

(17) Halaber, komeni da finantza-interesak babesteko neurri egokiak hartzea, honako erregelamendu hauetan xedatutakoaren arabera: 2988/95 (EE, Euratom) Erregelamendua, Europako Kontseiluarena, 1995eko abenduaren 18koa, Erkidegoetako finantza-interesak babesteari buruzkoa ⁽¹⁾, 2185/96 (EE, Euratom) Erregelamendua, Europako Kontseiluarena, 1996ko azaroaren 11koa, Erkidegoen finantza-interesak iruzur eta irregulartasunetatik babesteko Europako Batzordeak *in situ* egiten dituen kontrol eta egiaztapenei buruzkoa ⁽²⁾, eta 1073/1999/EE Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 1999ko maiatzaren 25ekoa, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) egindako ikerketei buruzkoa ⁽³⁾.

(18) Erregelamendu honen helburuak ezin dituzte behar bezala bete Estatu kideek, baina hobeto lor daitezke komunitatean, proposatutako ekintzaren zabalara delako. Horregatik, Europako Batzordeak hitzarmen-neurriak har ditzake, Tratatuko 5. artikuluan xedatutako sorospidetasun-printzipioaren arabera. Aipatutako artikuluan azaldutakoaren arabera, proportzionaltasun-printzipioarekin bat, Erregelamendu hau mugatzen da helburu horiek betetzeko beharrezko denera.

(19) Egoki da Erregelamendu hau betetzeko beharrezko neurriak onartzea, 1999/468/EE Erabakiaren arabera (Europako Kontseiluaren erabakia, 1999ko ekainaren 28koa, Europako Batzordeari esleitutako egite-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzen dituena) ⁽⁴⁾.

(20) Garapenerako askotariko tresnak eta finantza-mekanismo hau aplikatuko dira lankidetzak jarraituko duela bermatzeko moduan. Hortaz, bereziki, premiazko laguntza epe ertain eta luzerako laguntza izatera igaroko dela azaltzen da. Erregelamendu hau egokitu beharko zaio garabidean diren herrialdeetako elikagaiak seguruak izan daitezen laguntzeko epe luzerako estrategiari, herrialde horietako bertako plan eta beharretan oinarritutakoari.

(21) Erregelamendu honetan xedatutako neurriak eraginkorrak izango direla bermatzeko xedez, eta kontuan izanik neurriok premiazkoak direla, Erregelamendu hau indarrean sartu behar da argitaratu eta hurrengo egunean.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Xedea eta ezarpen-esparrua

1. Erkidegoak finantzatuko ditu garabidean diren herrialdeetan elikagaien prezioen hegazkortasuna modu azkar eta zuenean finkatzeko neurriak, nagusiki premiazko laguntzaren eta epe ertain eta luzeko garapenerako lankidetzaren arteko denbora-aldian.

2. Lehenengo paragrafoan aipatutako neurriek mesede egingo diete garabidean diren herrialdeei, Ekonomia Lankidetzara eta Garapenerako Antolakundearen eta Garapenean Laguntzeko Batzordearen (ELGA eta GLB) definizioaren arabera; bai eta herrialde horietako biztanleei ere, jarraian adierazi diren xedapenen arabera.

Europako Batzordeak neurri horiek onartuko ditu 13. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako prozeduraren arabera. Neurri horiek finantzatuko dituzte Erregelamendu honen xedea eta helburuak betetzen lagunduko duten ekimenak.

3. Entitateek ezarriko dituzten ekintza-programak (zehazki, finantzaketa jaso dezaketenak, 4. artikuluko 1. paragrafoaren arabera) sozietate zibileko erakundeekin kontsulta eginda landuko dira, betiere bideragarri badira. Eta finantza-mekanismo horren bitartez finantzatutako proiektuak aplikatuko dira erakunde horien parte-hartzearekin.

4. Erregelamendu honen erabilgarritasuna eta eragina optimizatzeko xedarekin, lehentasun handikoak diren herrialdeetara bideratuko dira baliabideak (herrialde horien zerrenda mugatua egingo da). Herrialde horiek hautatzeko oinarritzat hartuko dira eranskinean azaldutako irizpideak. Bestelako emaileekin eta garapen-arloko bestelako erkideekin koordinazioan egingo da hautaketa, beharren balioztatze baten bitartez. Balioztatze hori erakunde espezializatuek eta nazioartekoek egingo dute, besteak beste, Nazio Batuen sistemakoek, herrialde kideei aholkua eskatuta.

5. Erkidegoaren laguntza koherentea eta eraginkorra izango dela bermatzeko, egin behar den programa eskualdekoa edo mugaz haraindikoa denean, Europako Batzordeak erabaki ahalko du garatzen ari diren baina eskualde

¹ L 312 EO, 1995/12/23koa, 1. or.

² L 292 EO, 1996/11/15koa, 2. or.

³ L 136 EO, 1999/05/31koa, 1. or.

⁴ L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

horretakoak ez diren herrialdeetako biztanleek programaren onura jaso dezaketela, 13. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozeduraren arabera.

6. Nazioarteko erakundeek ezarritako neurrietarako laguntza emango denean (eskualdeko erakundeak nazioartekoen barruan sartuko dira, eta «nazioarteko erakunde» esango zaie guztiei, aurrerantzean), Europako Batzordeak hautatuko ditu erakunde horiek, 13. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako prozeduraren arabera eta honako hauek oinarri hartuta: emango duten balio erantsia; abantaila konparatiboa; eta programak modu azkar eta eraginkorrean ezartzeko duten gaitasuna, garabidean diren herrialdeen berariazko beharrak betetzeko, Erregelamendu honen helburuen barruan.

2. artikulua

Helburuak eta printzipioak

1. Hona hemen Erregelamendu honetan ezarritako laguntzaren eta lankidetzaren lehentasuneko helburuak:

- (a) Laguntza jasotzeko hautagai diren herrialde eta eskualdeetako nekazaritza-sektoreak erantzun positiboa izan dezaten sustatzea, eta eskaintza areagotu dadila;
- (b) erantzun azkarra eta zuzena emateko jardueren alde egitea, helburu hartuta elikagaien prezioen hegazkortasunak tokian tokiko herrietan dituen ondorio negatiboak murriztea, elikagaien segurtasunaren arloan dauden munduko helburuen arabera, Nazio Batuek nutrizio-beharren alorrerako egindako arauak barne;
- (c) nekazaritza-sektorearen produkzio-gaitasunak eta gobernantza sendotzea, esku-hartzeak iraunkorragoak izan daitezen.

2. Ikuspegi berezia ezarriko da, garapen-egoeraren eta elikagaien prezioen hegazkortasunaren eraginaren arabera, laguntza jasotzeko hautagai diren herrialdeek edo eskualdeek eta haietako biztanleek berariazko eta ondo egokitutako laguntza jaso dezaten, beren behar, estrategia, lehentasun eta erantzuteko gaitasunen arabera.

3. Erregelamendu honi jarraikiz laguntza jasoko duten neurriak koordinatzeko, bestelako tresnez lagundutako neurriak baliatuko dira; besteak beste, honako hauek: 1257/96/EE Erregelamendua, 1905/2006/EE Erregelamendua, 1717/2006/EE eta Europar Batasuna eta Afrika, Karibe eta Ozeano Bareko herrialdeak (AKOB) Elkartzeko Erabakia ⁽¹⁾. Horrek xede izango du lankidetzak aurrera jarraituko duela bermatzea, bereziki premiazko erantzuna epe ertain eta luzeko erantzun izatera iragaitearen gainean.

4. Europako Batzordeak zainduko du Erregelamendu honen arabera hartutako neurriak koherente izango direla tartean diren bestelako herrialde onuradunei buruzko Erkidegoko esparru estrategiko orokorrarekin.

3. artikulua

Ezarpena

1. Erkidegoaren laguntza eta lankidetzaz ezarriko dira laguntza-neurriak finantzatzeko zenbait erabakiren bitartez (1. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoetan aipatu dira). Europako Batzordeak hartuko ditu erabaki horiek, 13. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako prozeduraren arabera. 13. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozeduraren arabera, Europako Batzordeak aurkeztuko du finantza-mekanismo hori erabiltzeko plan orokor bat. Plan horretan sartuko dira laguntza jaso dezaketen herrien zerrenda (1. artikuluko 4. paragrafoan jaso) eta entitateen arteko oreka mantentzeko zehaztapenak (4. artikuluko 2. paragrafoan aipatuak). Garapenean Laguntzeko Batzordeak (13. artikuluko 1. paragrafoan aipatua) plan orokorrari buruzko txosten bat egingo du, 2009ko maiatzaren 1a baino lehen.

2. Herrialdeetako berariazko egoerak kontuan hartuta, honako laguntza-neurri hauek ezarri beharko dira:

- (a) nekazaritzako sargaiak eta zerbitzuak eskuratzea errazteko neurriak (ongarriak eta haziak barne), arreta berezia jarrita tokiko zerbitzuetan eta erabilgarritasunean;
- (b) «segurtasun-sare» erako neurriak, alde batetik, nekazaritzako produktuak ekoizteko gaitasuna mantentzeko edo hobetzeko; eta, bestetik, herri ahulenetako oinarritzko elikagai-beharrak betetzeko, bereziki haurren.
- (c) eskala txikiko bestelako neurriak, herrialdeko beharren arabera ekoizpena areagotzeko: mikrokredituak, inbertsioak, ekipamendua, azpiegiturak eta biltegitratze-sistemak, bai eta lanbide-heziketa eta nekazaritza-sektoreko profesional taldeentzako laguntza ere.

¹ Alde batetik, Afrika, Karibe eta Ozeano Bareko Estatuak eta, bestetik, Europako Erkidegoa eta Erkidegoko Estatu kideak Elkartzeko Erabakia, 2000ko ekainaren 23an Cotonun sinatua (L 317 EO, 2000/12/15koa, 3. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Laguntza-neurri horiek aplikatuko dira bi dokumenturen arabera: Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Adierazpena, Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Goi Mailako Biltzarrak Parisen onartua, 2005eko martxoaren 2an («Pariseko Adierazpena»); eta Ekintza Programa, Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Goi Mailako Biltzarrak Accran onartua, 2008ko irailaren 4an («Accrako Ekintza Programa»). Arreta nagusia jarriko du familiarako nekazaritza egiten duten eta elikagaiak ekoizten dituzten ustiategi txiki eta ertainetan, bereziki emakumeek zuzentzen dituztenetan, eta elikagaien krisiak eragin handiena izan duen herri txiroetan. Dena den, tokian bertako merkatuetan eta ekoizpenean inolako aldaketarik ez egiten saiatuko da. Ahal den heinean, sargaiak eta nekazaritzako zerbitzuak tokian bertan erosi behar dira.

4. Erregelamendu honen helburu berak dituzten administrazioeko laguntza-neurriak finantza daitezke; 12. artikuluan ezarritako zenbatekoaren % 2, gehienez ere.

4. artikulua

Onargarritasuna

1. Honako entitate hauek jaso dezakete finantzaketa, beren programek Erregelamendu honen helburuak betetzen lagunduko duten heinean:

- a) EBko kide diren herrialde eta eskualdeek, eta haietako instituzioek;
- b) EBko kide diren herrialdeetako entitate deszentralizatuak, besteak beste, udalerriek, probintziek, departamentuek eta eskualdeek;
- c) EBko kide diren herrialde eta eskualdeek eta Erkidegoak eratutako erakunde mistoek;
- d) nazioarteko erakundeek, honako hauek barne: eskualdeko erakundeak; Nazio Batuen sistemako erakunde, zerbitzu edo misioak; nazioarteko eta eskualdeko finantza-erakundeak; eta garapeneko bankuak;
- e) Erkidegoko erakunde eta organoek, soilik 3. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako laguntza-neurriak betetzeko esparruan;
- f) Europar Batasuneko agentziek;
- g) Estatu kideetako, EBko kide diren herrialde eta eskualdeetako edo bestelako edozein Estatuko hurrengo entitate edo organismoek, 1905/2006/EE Erregelamenduan xedatutako arauak, Erkidegotik kanpoko laguntza jasotzeari buruzkoak, betetzen dituztenek; eta, betiere, Erregelamendu honen helburuak betetzen laguntzen duten neurrian:
 - i) erakunde publikoak edo erdi-publikoak, agintariak edo tokiko entitateak eta haien taldekatzeak edo elkarte-ordezkariek;
 - ii) sozietate, enpresa eta gainerako erakunde eta agente ekonomiko pribatuak;
 - iii) finantza-erakundeak, EBko kide diren herrialde eta eskualdeetan inbertsio pribatuak eman, sustatu eta finantzatzen dituztenak;
 - iv) estatukoak ez diren agenteak, beren aldetik eta modu arduratsuan jarduten dutenak;
 - v) pertsona fisikoak.

2. Baliabideak esleitzeko orduan, oreka egokia sortzen saiatuko da artikuluko d) letrako 1. paragrafoan zehazitutako erakundeek eta finantzaketa jaso dezaketen bestelako entitateen artean.

5. artikulua

Finantzatzeko moduak

Erkidegoak honako hauen bitartez eman dezake finantzaketa:

- a) proiektuak eta programak;
- b) aurrekontu-laguntza, bereziki sektoreko aurrekontu-laguntza, baldin Estatu kideko gastu publikoaren kudeaketa nahikoa argia, fidagarria eta eraginkorra bada, eta finantzaketako tresna geografiko egokian xedatutako aurrekontu-laguntzarako baldintzak bete badira;
- c) ekarpenak nazioarteko edo eskualdeko erakundeei, eta erakunde horiek kudeatzen dituzten nazioarteko funtsei;

- d) ekarpenak herrialde eta eskualde kideek zehaztutako funts nazionaleri, hainbat funts-hornitzailearen baterako finantzaketa errazago egiteko helburuarekin; edo ekarpenak funts-hornitzaile batek edo zenbaitek zehaztutako funtsei, proiektu jakin batzuk batera egiteko;
- e) baterako finantzaketa, 4. artikulua araberako finantzaketa jaso dezaketen entitateekin.
- f) funtsak, Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) edo bestelako finantza-artearen eskura jarriak, Europako Batzordearen programak oinarri hartuta, honako hauek emateko: maileguak (bereziki, sektore pribatua garatzen eta inbertsioan laguntzeko), arrisku-kapitala (bereziki, baldintzatutako maileguak edo baldintzapekoak) edo enpresen kapitaleko bestelako partaidetza gutxiengoak eta aldi baterakoak, bai eta berme-funtsetarako ekarpenak ere, 1905/2006/EE Erregelamenduko 32. artikuluan xedatutako baldintzetan, Erkidegoaren finantza-arriskua funts horietara mugatzen den heinean.

6. artikulua

Finantzatzeko eta kudeatzeko prozedurak

1. Erregelamendu honi jarraikiz finantzatutako neurriak 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduan xedatutakoaren araberako beteko dira (Erkidegoetako aurrekontu orokorrari aplikagarri zaion Finantza Erregelamendua onartzen duen Erregelamendua) ⁽¹⁾, kontuan izanik, kasuan kasu, neurriak zein krisi-testuingurutan hartuko diren.
2. Europako Batzordeak erabaki dezake agintaritzatza publikoko eginkizun jakin batzuk, bereziki aurrekontua egitekoak, uztea zenbait erakunderen esku (1605/2002 —EE, Euratom— Erregelamenduko 54. artikuluko 2. paragrafoko c) letran aipatu dira erakundeok), baterako finantzaketa egiten denean edo behar bezala justifikatuta dauden bestelako kasuetan.
3. Kudeaketa deszentralizatu egiten denean, Europako Batzordeak erabaki dezake funtsen onuradun den herrialde edo eskualde kideko diru-laguntzak emateko edo kontratazio publikoko prozedurez baliatzea. Hori egin aurretik, baina, ziurtatu beharko du betetzen dituztela 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduan xedatutako irizpideak. Eta, betiere, 1905/2006/EE Erregelamenduan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
4. Hasiera batean, Erkidegoaren laguntza ez da erabiliko onuradun diren herrialdeetan zergak, eskubideak edo tasak ordaintzeko.
5. Kontratzeko prozedura egokietan parte har dezake edozein pertsona fisiko eta juridikok, baina onargarri izan behar dute ekintza egingo den herrialdean aplikagarri den garapen geografikoko tresnaren araberako. Orobat, parte har dezake egiteko ardura duten nazioarteko erakundeetako arabei jarraikiz onargarri den edozein pertsona fisiko eta juridikok. Hornikuntza eta materialei buruzko gaitan arau berak aplikatuko dira. Adituak edozein herritartasunekoak izan daitezke.

7. artikulua

Aurrekontu-konpromisoak

Aurrekontu-konpromisoak egingo dira oinarri hartuta Europako Batzordeak hartutako erabakiak.

8. artikulua

Europako Erkidegoko finantza-interesak babestea

1. Erregelamendu hau aplikatzen etorriko den finantza-hitzarmen orotan xedapenak jarriko dira. Xedapen horiek bermatuko dute Erkidegoko finantza-interesak babestuta izango direla, bereziki, irregulartasun, iruzur, ustelkeria eta legez kontrako bestelako edozein jardueratik, honako erregelamendu hauen araberako: 2988/95 (EE, Euratom) Erregelamendua, 2185/96 (EE, Euratom) Erregelamendua eta 1073/1999/EE Erregelamendua.
2. Hitzarmenetan zehaztuko da, berariaz, Europako Batzordeak eta Kontuen Auzitegiak duten ahalmena Erkidegoko funtsak jaso dituzten kontratista eta azpikontratista guztien kontu-ikuskapenak egiteko, dokumentu-ikuskapenak eta *in situ* kontu-ikuskapenak barne. Gainera, esplizituki baimendu beharko dute Europako Batzordea kontrolak eta ikuskapenak *in situ* egiteko, 2185/96 (EE, Euratom) Erregelamenduan xedatu bezala.
3. Laguntza gauzatzetik sortuko diren kontratuek bermatuko dute Europako Batzordeak eta Kontuen Auzitegiak izango dutela 2. paragrafoan azaldutako ahalmena erabiltzeko aukera, kontratuak egiten direnean eta ondoren.

¹ L 248 EO, 2002/09/16koa, 1. or.

9. artikulua

Europar Batasunaren ikuspen egokia

Erregelamendu honi jarraikiz egin diren kontratueta berriazko xedapenak sartuko dira, eta xedapen horiek bermatuko dute Europar Batasunak ikuspen egokia izango duela kontratu horiek oinarri hartuta egingo diren jarduera guztietan.

10. artikulua

Balioztatzea

1. Europako Batzordeak ikuskatu eta berraztertuko ditu Erregelamendu honen babespean egingo diren jarduerak, egoki denean, kanpo-balioztatze independenteen bitartez. Horren xedea izango da, alde batetik, egiaztatzea ea helburuak bete diren; eta, bestetik, gomendioak egitea, garapenerako lankidetzan etorkizunean egingo diren ekintzak hobetzeko. Behar bezala kontuan izango dira Europako Parlamentuak edo Europako Kontseiluak egingo dituen kanpo-balioztatze independenteak egiteko proposamenak.

2. Europako Batzordeak balioztatze-txostenak bidaliko dizkie 13. artikuluan aipatutako Garapenean Laguntzeko Batzordeari eta Europako Parlamentuari, informatzeko. Estatu kideek eska dezakete Garapenean Laguntzeko Batzordeak azter ditzala berriazko balioztatze jakin batzuk.

3. Europako Batzordeak bilduko ditu egoki diren alde interesdun guztiak (estatukoak ez diren agenteak eta tokian bertako agintariak barne) Erregelamendu honen babespean emango den Erkidegoaren laguntza balioztatze fasean.

11. artikulua

Kontuak ematea

Europako Batzordeak txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, neurriak gauzatzeari buruzkoa. Txosten horretan sartuko ditu, ahal den neurrian, Erregelamendu honen babespean emandako laguntzaren emaitza eta eragin nagusiak, eta 2012ko abenduaren 31n aurkeztuko du, beranduenik ere. 2009ko abenduan, Europako Batzordeak ezartzen hasitako neurrien behin-behineko lehendabiziko balantzea aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Artikulu honetan aipatutako txostenek arreta berezia jarriko dute Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Pariseko Adierazpenean eta Accrako Ekintza Programan.

12. artikulua

Finantza-xedapenak

2008. eta 2010. urteen arteko denbora-aldian Erregelamendu hau aplikatzeko erreferentziazko finantza-zenbatekoa 1.000 milioi euro izango da.

13. artikulua

Garapenean Laguntzeko Batzordea

1. Europako Batzordeari laguntza emango dio Garapenean Laguntzeko Batzordeak (1905/2006/EE Erregelamenduko 35. artikuluko 1. paragrafoan aipatua).

2. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 4. eta 7. artikulua izango dira aplikagarri, eta 8. artikuluan xedatutakoa beteko da.

3. 1999/468/EE Erabakiko 4. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako epea hamar egun baliaduneko izango da 2009ko apirilaren 30a baino lehen hartutako neurrietarako; eta hogeita hamar eguneko, hortik aurrera hartuko direnetarako.

14. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau indarrean sartuko da *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunean.

Erregelamendu hau aplikagarri izango da 2010eko abenduaren 31ra arte.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erregelamendu hau nahitaez ezarri beharrekoa da, eta zuzenean aplikatu daitezke Estatu kide bakoitzean.

Estrasburgon, 2008ko abenduaren 16an.

Europako Parlamentuaren izenean

Lehendakaria,

H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean

Lehendakaria,

B. LE MAIRE

ERANSKINA

Orientatzeko irizpideak, laguntza jasotzeko hautagai diren herrialdeak aukeratzeko eta finantza-baliabideak esleitzeko:

- Herritarren txirotasun-maila eta benetako beharrak.
- Elikagaien prezioen bilakaera eta horrek gizartean eta ekonomian izan dezakeen eragina:
 - Elikagaien inportazioaren mendekotasuna
 - Gizarte-zaurkotasuna eta politikaren egonkortasuna
 - Elikagaien prezioen bilakaerak dituen eragin makroekonomikoak
- Herrialdeak duen gaitasuna, erantzuteko eta erantzun-neurri egokiak ezartzeko
 - Nekazaritzako produktuak ekoizteko gaitasuna
 - Kanpo-nahasmenduen aurreko erresistentzia

Herrialdeei finantza-esleipen adierazgarriak egiteko oinarri hartuko dira laguntza zein herrialderi emango zaion hautatzeko irizpideak, eta aintzat hartuko da laguntza emango zaien herrialdeetako biztanleria-kopurua.

Halaber, kontuan izango dira laguntza jasoko duen herrialdeak epe laburrean eskuragarri izango dituen bestelako finantza-iturriak ere, emaileen komunitatearenak, elikagaien prezioen bilakaeraren aurrean erantzuteko.